

Ekonomia eta industriako jarduerak

Actividades económicas e industriales




12. Enpresaren eta erakunde publiko nahiz pribatuen Ingurumen Kudeaketa

12. Gestión Ambiental de empresas y organizaciones públicas y privadas

Udalerriko sektore pribatuko enpresek eta erakunde publikoek eskuratutako Ingurumen Kudeaketarako Sistemen (IKS) ziurtagiri kopuruaren urteko bariazioa islatzen du adierazle honek. Ingurumen Kudeaketarako Sistema bat erakunde baten ingurumen-jarduera planifikatu, gauzatu, berraztertu eta hobetzeko ziklo jarraitu bat da. Honako hauek dira adierazle honi dagozkion IKSak: ISO 14000 Arauak, ISO 14006 Arauak, EKOSCAN ziurtagiria eta EMAS sistema. Goranzko joera izatea da helburua.

Este indicador refleja la variación anual en el número de certificaciones de Sistemas de Gestión Ambiental (SGA) obtenidas por las empresas del sector privado y las instituciones públicas presentes en el municipio. Un Sistema de Gestión Ambiental es un ciclo continuo de planificación, acción, revisión y mejora de la actuación medioambiental de una entidad. Los SGA considerados en este indicador son las Normas ISO 14001, ISO 14006, el certificado EKOSCAN y el sistema EMAS, siendo la tendencia deseable el aumento.

2015ko ziurtagiri kopurua Número de certificaciones existentes en 2015	(a)	2014ko ziurtagiri kopurua Número de certificaciones existentes en 2014	(b)
$\left(\left(\frac{a}{b} \right) \cdot 100 \right) - 100$			
2015 urteko bariazio-tasa: % 17		Tasa de variación anual 2015: 17 %	



(*) Eguneratu gabeko datuak Datos no actualizados

2015. urtean udalerrian 118 ziurtagiri zeuden, 2014. urtean baino % 17 gehiago. 22 ziurtapen udal-sozietateei, Euskal Herriko Unibertsitateari, Osakidetzari, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari zegozkien batez ere.

2017. urtean berdin mantentzen da EMAS eta Ekoscan ziurtagiri kopurua, 7 eta 6 ziurtagiri hurrenez hurren. ISO ziurtagiriaren kasuan, ez dago datu eguneraturik 2014. urtean, hiru urtean behin eguneratzen direlako datuak. 2015. urtean 105 ziurtagiri ziren.

En 2015 existían en el municipio un total de 118 certificaciones, un 17 % más que en 2014. 22 certificaciones correspondían a instituciones públicas presentes en el municipio, principalmente sociedades municipales, Universidad del País Vasco, Osakidetza, Gobierno Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa.

En 2017 se mantiene el mismo número de certificaciones EMAS y Ekoscan que en 2015 y 2016, 7 y 6 respectivamente. En el caso de las certificaciones ISO no se dispone de datos actualizados para 2017, ya que se contabilizan de forma trienal. En 2015 ascendían a 105 certificaciones.



13. Emakume eta gizonen arteko Aukera-berdintasunerako Erakunde Laguntzaileak

Adierazle horrek "Aukera-berdintasunean erakunde laguntzaile" gisa aitortza jasotzen duten enpresa edo erakunde kopuruan urteko bariazioa erakusten du; joera desiragarria goiera izango litzateke.


"Emakume eta Gizonen arteko aukera-berdintasunerako erakunde laguntzaile" figura Eusko Jaurlaritzako otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak arautzen du; dekretu honek, azaroaren 8ko 424/94 Dekretua indargabetzen du. Emakume eta gizonen artean aukera-berdintasun handiagoa lortzeko jarduerak antolatuz, beren langileen berdintasunean aurrera egiteko konpromisoa hartzen duten erakundeei egiten zaien aitortza da.

13. Entidades Colaboradoras en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres

Este indicador refleja la variación anual en el número de empresas o entidades privadas que obtienen el reconocimiento como "Entidad colaboradora en igualdad de oportunidades", siendo la tendencia deseable el aumento.

La figura de "Entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre Mujeres y Hombres" está regulada por el Decreto 11/2014, de 11 de febrero, del Gobierno Vasco, que deroga el Decreto 424/94, de 8 de noviembre. Se trata de un reconocimiento a las entidades que se comprometen a avanzar en la igualdad de sus trabajadoras y trabajadores, desarrollando actuaciones que propicien una mayor igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

2017an zegoen erakunde kolaboratzaile-kopurua Número de entidades colaboradoras existentes en 2017	(a)
2016ean zegoen erakunde kolaboratzaile-kopurua Número de entidades colaboradoras existentes en 2016	(b)
$\left(\left(\frac{a}{b} \right) \cdot 100 \right) - 100$	
Urteko bariazio-tasa: % 11	Tasa de variación anual: 11 %




2005 eta 2014 urte bitartean, azaroaren 8ko 424/94 Dekretua indarrean zegoela, 26 entitatek "Erakunde Laguntzaile" aitortza jaso zuten, urteroko batezbestekoan 2,6 enpresa gehiago zirelarik.

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretua indarrean sartzen denetik, 21 enpresa eta entitatek jaso dute "Erakunde Laguntzaile" aitortza. Hauetatik, % 62ak indargabetutako aurreko dekretuaren arabera aitortza jaso zuen jada; guztiek ziurtagiria berriro lortu behar izan dute, dekretu berriak emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako eskakizun eta konpromezu maila altuagoa izateagatik. 2017. urtean, bi enpresek lortu dute ziurtagiria, % 11 gora egin duelarik 2016. urteko aitortza kopurua kontuan izanda.

Entre el año 2005 y 2014, estando en vigor el Decreto 424/94, de 8 de noviembre, obtuvieron el reconocimiento de "Entidad Colaboradora" un total de 26 entidades, con un incremento promedio de 2,6 empresas por año.

A partir de la entrada en vigor del Decreto 11/2014, de 11 de febrero, son 21 las empresas y entidades que han obtenido el reconocimiento de "Entidad Colaboradora". De ellas, el 62 % ya había obtenido el reconocimiento según el anterior decreto derogado, si bien todas ellas han tenido que volver a certificarse al requerirse un nivel más alto de exigencia y compromiso en la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. En 2017, han sido dos las empresas que han obtenido la certificación, representando un incremento del 11 % respecto a las existentes en 2016.



ETXEBIZITZA TURISTIKOEN ALOKAIRUA ARAUTZEA

Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzako logelaren alokairu turistikoa utzeko udal-ordenantza

Donostiak, duela mende eta erdi baino gehiagotik, hiriko ateak zabal-zabalik ditu eta Europako eredu turistiko izan da XIX. mendearan amaieratik. Joera horrek moldatu du, hein handi batean, gaur egun biztanleek eta bisitariak gozatzen duten hiri- eta arkitektura-fisonomia. Hiri-eredua, hondartzak eta hiri-irudia osatzen duten eraikin adierazgarri eta nabarmenak kultura-ondarearen, imaginario kolektiboaren eta hiriarren itxura arkitektonikoaren parte dira.

Gure hiriko eta itsasertzeko habitata begiz jo dute azkenaldian honetan, askotariko faktoreak direla eta, fluxu turistikoek, eta munduko hainbat lekuko jendea erakarri du, plataforma eta bitarteko globalen bitartez. Gauzak horrela, bisitari-kopuruak gora egin du asko eta, aurreikuspenen arabera, datuen urteetan gehiago handituko da.

Jarduera turistikoaren igoerak bizitegi-eraikinetako etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzea eragin du, besteak beste. Hiriak badu horretarako tradizioa baina, azken urteetan, era horretako etxebizitzaren kopuruak esponentzialki egin du gora. Hori, funtsean, horrelako ostatuak erreserbatzeko bitartekari- eta erakargarri-lanak egiten dituzten web-orriak eta enpresak agertu direlako.

Etxebizitza turistikoak hedatu dira hala jabeek ondasun higiezinak etekin ekonomiko atera nahi dietelako (etxebizitza gisa erabiltzeaz harago) nola turista-mota jakin batzuek interesa dutelako.

Hirigintza-erregulazioa ez ezagutzeak eta turismoa egoki ez arautu izanak jarduera hori indarrean dauden hirigintza- eta ingurumen-arauak aintzat hartu gabe gauzatzea eragin du. Gainera, jarduera hori hedatzeko interes ekonomikoak duten erakunde ekonomiko, bitartekari, zerbitzu-emaile eta antzekoak agertu eta finkatu dira eta horrek prozesu hori guztia erraztu du.

Hirian etxebizitza turistikoaren hirigintza-erabilera eta ohiko etxebizitzetan logelaren alokairu turistikoa ezartzeko baldintzak arautze aldera, Udalak udal-ordenantza bat onartu du, non irizten baition etxebizitza bateko logelak erabilera turistikorako alokatzea ohiko etxebizitza partzialki lagatzea dela. Erabilera turistiko hori ohiko etxebizitzako logela edo gela batean edo gehiagotan gauzatu daiteke, eta etxebizitza hori pertsona fisiko titularren bizitokia da. Alde horretatik, logelak edo gelak arrazoi turistikoengatik eskaintzen eta merkaturatzen dira eta etxebizitza hirugarrenei lagatzen zaie aldi baterako, kontraprestazio ekonomiko baten truke, eta erabilgarritasuna berehalakoa da.

REGULACIÓN DEL ALQUILER DE VIVIENDAS PARA USO TURÍSTICO.

Ordenanza municipal reguladora del uso de vivienda turística y de alquiler de habitaciones en vivienda habitual para uso turístico

San Sebastián ha tenido, desde hace más de un siglo y medio, una vocación de ciudad abierta que la convirtió en referente turístico de Europa desde finales del siglo XIX. Esta vocación ha configurado, en gran medida, la fisonomía urbana y arquitectónica de la que hoy disfrutan quienes la habitan y aquellas personas que la visitan. El modelo urbano, las plazas, y edificios significativos y representativos de la imagen de la ciudad, forman parte indisolublemente del acervo cultural, del imaginario colectivo y de la imagen arquitectónica de la ciudad.


Este privilegiado hábitat urbano y costero viene siendo objeto de atención de los actuales flujos turísticos por muy diversos factores, atrayendo a personas desde diferentes partes del mundo y a través de plataformas y medios globales, pudiendo observarse un importante alza de afluencia de visitantes, con previsiones de aumento en los próximos años.

Uno de los fenómenos que este crecimiento de la actividad turística ha provocado es el de la operación de cesión del uso de inmuebles localizados en edificios residenciales para uso turístico que, si bien ha existido tradicionalmente, ha experimentado en los últimos años un incremento exponencial, como consecuencia fundamentalmente de la aparición de páginas web y empresas dedicadas a la captación e intermediación en la reserva de estos alojamientos.

El desarrollo de esta actividad se produce tanto por el interés de quienes ostentan la propiedad por obtener un rendimiento económico de sus bienes inmuebles, más allá del propio de su destino a vivienda, como por el interés de determinados perfiles de turistas.

El desconocimiento de la regulación urbanística, junto con la falta de adecuada regulación de la normativa turística, han llevado al desarrollo de esta actividad sin respeto al marco urbanístico y medioambiental vigente. Todo ello favorecido por la aparición y asentamiento de un número de entidades económicas, intermediarias, prestadoras de servicios, etc., interesadas económicamente en la expansión de estas actividades.

Con el objeto de regular las condiciones de implantación del uso urbanístico de vivienda turística en la ciudad y el alquiler de habitaciones para uso turístico en una vivienda habitual, el Ayuntamiento ha aprobado una Ordenanza Municipal, donde se considera que el alquiler de las habitaciones de una vivienda para un uso turístico implica la cesión parcial de la vivienda habitual. Dicho uso turístico se podrá desarrollar en una o varias habitaciones o estancias de una



Aipaturiko hirigintza-ordenantzaren helburua da segurtasun juridikoa handitzea eta, horretarako, erregulazio-erregimena argiago eta zorrotzago zehaztea. Asmoa da, halaber, hiriko zona jakin batzuetan jarduera hori modu orekatuagoan garatzea. Hori guztia hainbat interes aintzat hartuta: ingurumena babestea, auzotarren atsedeen hartzeko eskubidea ziurtatzea, bizitegi-erabilera hirigintza-antolamenduan ezarritako moduan zaintzea, hiri osoko dinamizazio ekonomiko eta soziala lantzea eta eremu jakin batzuetan gentrifikazioa eragozteak beste. Ordenantzan jasotako udal-erregulazioaren funtsak dira, batetik, bizitegi-eraikinetan etxebizitza turistikoak jartzeko baldintzak; eta bestetik, hiria tipologien arabera eremutan banatzea, erabilera turistikoa arautzeko. Eremu horiek dira A eremuak edo eremu aseak, B eremuak edo eskari handiko eremuak eta C eremuak edo ostatu turistikoaren eskaintza handitzeko aukera duten eremuak. Era horretan, ordenantzaren asmoa da etxebizitza turistikoaren hirigintza-erabilera ezartzerakoan zona aseak eta gaur egun eskaintza gutxiago duten zonak orekatzea. Erregulazioa hainbat araudi-aurreikuspenekin dago osatua, besteak beste lizentziak eskatzeko eta emateko prozedurei buruzkoarekin, ingurumen-diziplinarekin eta zehapen-araubidearekin. Xedapen horiek guztiak bat datoz Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 lege orokorrean jasotako aurreikuspenekin.

vivienda habitual, la cual constituye la residencia efectiva de la persona física titular, que se ofrecen o comercializan por motivos turísticos, siendo cedida temporalmente a terceros a cambio de contraprestación económica, en condiciones de inmediata disponibilidad.

Esta Ordenanza Urbanística tiene por objeto el incremento de la seguridad jurídica contribuyendo a una más clara y precisa determinación del régimen de regulación. Al mismo tiempo, pretende permitir un ámbito de desarrollo de esta actividad más equilibrado en lo que respecta a determinadas zonas de la ciudad. Todo ello respetando los diversos intereses en presencia: la protección del medio ambiente, el derecho al descanso de la vecindad, la necesidad de preservar el uso urbanístico residencial de vivienda en los términos establecidos en la ordenación urbanística, el interés en la dinamización económica y social del conjunto de la ciudad, evitando procesos de gentrificación en determinadas áreas, etcétera. El núcleo esencial de la regulación municipal contenida en la Ordenanza viene constituido, por un lado, por las condiciones del emplazamiento del uso urbanístico de vivienda turística en las edificaciones residenciales y, en segundo lugar, por la zonificación de la ciudad en diferentes tipologías para regular su posible uso turístico: zonas A o saturadas, zonas B o de alta demanda y zonas C o con posibilidad de incrementar la oferta alojativa turística. De este modo, la Ordenanza busca un mayor equilibrio en la implantación del uso urbanístico de vivienda turística en las zonas equilibradas y en las zonas con menor afección actual. La regulación se ve completada por diversas previsiones normativas, como las relativas a los procedimientos de solicitud y concesión de licencias, a la disciplina medio ambiental o al régimen sancionador, disposiciones éstas que se ajustan sustancialmente a las previsiones contenidas en la Ley 3/1998 de 27 de febrero General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Informazio gehiago:

Etxebizitza turistikoaren erabilera eta ohiko etxebizitzako logelaren alokairu turistikoa utzeko udal-ordenantza

Más información:

Ordenanza municipal reguladora del uso de vivienda turística y de alquiler de habitaciones en vivienda habitual para uso turístico